



64. EUSKAL SOZIOMETROA: PERTSONA NAGUSIAK (2017ko uztaila) Prensa oharra

SARRERA

64. Euskal Soziometro honen gaia EAEko herritarrek pertsona nagusiei eta zahartzaroari buruz dituzten jarrera eta iritzia jasotzea izan da. Landa lana 2017ko maiatzaren 16a eta 22a bitartean egin zen.

EGOERAREN BALORAZIOA

Euskadiko egoera politikoaren balorazio positiboa lehen aldiz hamar urtetan

Egoera politikoaren balorazio positiboa da lehen aldiz 2007tik honantz. Euskadiko egoera politikoa oso ona edo ona dela uste dute pertsonen %54k, txarra edo oso txarra dela uste duten %36ren aurrez aurre. Egoera politikoaren balantze positibo hau ez zen 2007tik ematen.

Oro har, euskal herritarrek egoeraren balorazio positiboa egiten dute. Euren bizitzarekiko oso (% 28) edo nahikoa (% 56) pozik daude; eta Euskadiko egoera ekonomikoari (% 64k ona edo oso ona) eta politikoari (% 54k ona edo oso ona) dagozkion balorazioak ere positiboak dira.

EAEko arazo nagusia lan merkatuari lotutako arazoak aipatu dituzte berriz ere gainerakoak baino askoz gehiago (% 72k hiru arazo nagusien artean aipatu dituzte). Bigarren lekuan arazo ekonomikoak aipatu dira gehien (% 14), eta ondoren egoera politikoa eta etxebizitza eta etxe-gabetzeak (% 11 bi kasuetan), eta zerbitzu publikoen funtzionamendua eta hedadura eta laguntzak, eta osasungintza (% 8, bi kasuetan). Aipatzekoa da ere arazo nagusien garrantzia txikitzen ari dela, batez ere lehenengoarena, eta berau aipatu dutenen portzentajea otsaileko % 79tik egungo % 72ra jaitsi da. Arazo nagusien garrantzia jaisten ari da eta, bereziki, lehena otsaileko % 79tik gaur eguneko % 72raino.

PERTSONA NAGUSIAK

Zahartzaroari buruz iritzia gehienbat positiboa da. Beldur nagusiak gaitasun fisiko eta intelektualen gainbeherarekin dute zerikusia

Bizitzako garairik zoriontsuenak haurtzaroa (% 43) eta gaztaroa (% 33) dira. Soilik % 4k aipatu dute hirugarren adina bizitzako garairik zoriontsuena bezala, baina portzentaje hau % 10era igotzen da 65 urtetik gorako pertsonen artean.

Hirugarren adinarekiko iritzi nagusia gehienbat positiboa da, herritarrek pentsatzen dute pertsona nagusiek ezagutza eta esperientzia ekartzen diotela gizarteari (% 63 oso ados eta % 30 nahikoa ados), eta laguntza handia direla familia gazteentzat (% 60 eta % 32, hurrenez hurren). Alabaina, % 53ren iritzi pertsona nagusiek ez dute betetzen gizartean dagokien lekua, eta % 41ek uste dute gizarteak axolagabekeria tratatzen dituztela pertsona edadetuek.

Pertsona bat "nagusia edo edadetua" dela uste da 69 urteetatik aurrera. Hala ere % 15ek uste dute ez dela adin kontua. Pertsona bat edadetua dela esateko arrazoi nagusiak dira: aldearekin gainera, gaitasun fisikoaren gainbehera (% 48), eta baita, gaitasun intelektualen gainbehera (% 33) eta osasuna (% 26) ere. Adina bera laugarren arrazoiak da, eta garrantzitsuenen artean soilik % 23k kokatu dute. Adina zahartzaroaren adierazgarri bezala gehiago kokatu dute gazteenek, eta adinean gora goazen neurrian garrantzia galtzen du, eta hauen artean gaitasun fisiko eta intelektualen gainbehera eta osasuna gehiago nabarmentzen dira.

Biztanleen erdiek nolabaiteko kezka adierazi dute euren zahartzaroarekiko: %15ek handia, %20k nahikoa eta %13k zertxobait. Kezkarako arrazoi nagusiak dira: ezingo duelako bere kabuz moldatu (% 43) eta gaitasun fisikoaren gainbeheragatik (% 39). Kezkarako motiboak dira ere gaitasun intelektualen gainbehera (% 25), nahikoa diru ez izatea (% 17), bakardadea (% 16) eta ezgauza sentitzea (% 15).

Garrantzitsua da norbere burua zaintzea eta familia eta lagunekin harreman onak mantentzea

Norbere burua zaintzea eta familiarekin eta lagunekin harreman onak izatea dira gakoa nagusia izandakoan bizitza kalitate ona izateko. Hots, adin horretan oso garrantzitsua da elikadura zaintzea % 76arentzat, familiarekin harreman onak mantentzea % 73rentzat, ariketa fisikoa egitea % 72rentzat, eta lagunekin harremana izatea % 70entzat.

Bizitzako garai horretaz disfrutatzeke aukeratzen diren ekintzak aisialdiarekin zerikusia dutenak dira, hala nola, hobby edo zaletasun bat izatea edo bidaiatzea (% 84 hurrenez hurren), aldiz, portzentajeak dezente txikiagoak dira bestelako ekimenak burutzeko nahiari dagokionez: lan boluntarioa egitea (% 49), lanean jarraitzea edo enplegu bat bilatzea (% 20) edo erakunde politiko edo sindikal batean parte hartzea (% 16).

Pentsioak mantenduko ote direnaren gaineko kezka dago

Biztanleriaren bi herenek uste dute erretiro adinean dauden pertsonen lan egiteari utzi behar diotela gazteei bide uzteko (% 66), eta % 28 dira uste dutenak euren lanbidearekin jarraitzeko aukera izan behar dutela hala nahi badute.



Euskal herritarren % 45 oso kezkatuta daude erretiro pentsioak mantentzearekin eta % 37 pixka bat kezkatuak, kezka handiagoa da erretiro adinera hurbiltzen ari diren adin tartetan, hots, 45-64 urte bitartekoen artean oso kezkatuta ageri dira % 55, eta txikiagoa da gazteen artean (% 31 dira oso kezkatuta daudenak).

Egungo pentsio sistemaren aurrean, nahiago diren aukerak dira dirua beste zerbitzu publiko batzuetatik kentzea pentsioak ordaintzeko (% 27) eta bizitza laboralean zehar gehiago ordaintzea, pentsioak gaur egungo mailan mantentzeko (% 26). Azken aukera hau da ere pertsonalki nahiagoko litzatekeena (% 66).

Zaintzaren antolaketa eta kalitatearekin gehienbat pozik daude

% 60k uste dute gaur egun seme-alabek, orokorrean, gurasoak lehen baino okerrago zaintzen dituztela, soilik % 12k uste dute egun hobeto zaintzen dituztela. Erdia baino gehiago dira pentsatzen dutenak dependentziaren bat duten pertsona nagusiak zaintzeko hobe dela hauek euren etxeetan bizitzen jarraitzea, bertan senitartekoren batek (% 38) edo ordaindutako pertsona batek (% 27) zainduta; bigarren aukera zahar egoitza litzateke (% 21). Soilik % 8k uste dute egokiena dela dependentzia duen pertsona senitartekoren baten etxean bizitzea.

Lautik batek gertuko senitartekoren bat du adinagatik eguneroko bizitzako oinarrizko gauzak egiteko laguntza behar duena. Horietatik, %18ren kasuan zahar egoitza batean bizi da dependentzia duen senitartekoa, beraz bostetik lau senitartekoek edo ordaindutako pertsonaren batek zaintzen dituzte.

Senitartekoak pertsonalki zaintzen dituzten artean sortzen diren sentimenduak aldebikoak dira: alde batetik, betebeharrak moral bat bezala bizi dute (% 85 oso edo nahikoa ados), baina bestetik oso ongi sentitzen dira egiteagatik (% 84). %25entzat zama astunegia da pertsona hori zaintzea.

Pertsonalki zaintza lanetan aritzen diren hauek pozik agertu dira zaintzaren antolaketa moduarekin (% 88 oso edo nahikoa), baina ez hain pozik zaintzak euren bizitza profesional eta familiarrean duen eraginarekin (% 64). Hots, zaintzaileen herena inguruk uste dute zaintza lanak eragin negatiboa duela euren bizitza pertsonalean (% 38), osasunean (% 35) eta lan edo familia bizitzan (% 30).

Zaintzak behar dituen senitartekoren bat dutenen artean, % 86 pozik daude pertsona horrek jasotzen duen zaintzarekin. % 11ri pertsona hori zaintzeak aurre egitea kostatzen zaion kostu ekonomikoa suposatzen die.

Zaintza senitartekoen ardura dela uste bada ere, Herri Administrazioen laguntza beharrezko jotzen da, batez ere pertsona nagusiak euren etxeetan bizitzen jarraitu ahal izateko

Hamarretik seiren ustez dependentzia duten pertsona nagusiak zaintzea senitartekoen eta gertukoaren ardura da. Hala ere, gehienek Administrazio Publikoen babesa eskatzen dute (% 9 dira soilik senitartekoen ardura dela diotenak eta % 58 senitartekoen ardura dela baina Administrazio Publikoen laguntzarekin).

Eskatzen diren laguntzak, batez ere, dependentzia duten pertsona nagusiak euren etxeetan bizitzen jarraitzeko babestearekin, hala nola: etxer-etxeko laguntza zerbitzuak handitzea (% 45), zaintzaileentzat laguntzak (% 33), etxebizitzak pertsona nagusien beharretara egokitzea (% 31), bakarrik bizi diren pertsona nagusien jarraipen handiagoa (% 20) eta zaintzaileen kontratazioarako aholkularitza (% 19). Zahar egoitza (% 23) eta eguneko egoitzetako (% 14) leku kopurua handitzea ere eskatzen da.

ALDERDI ETA BURUZAGIEN BALORAZIOAK OHIKO MAILETARA ITZULI DIRA

EAJ da berriz ere begikotasun handiena eragiten duen alderdia (4,6, 0tik 10erako eskalan); ondoren datoz Elkarrekin Podemos (3,5), EH Bildu (3,4), PSE-EE (3,2), eta azkenik PP (1,5). Alderdi guztien balorazioak, PPrenak izan ezik, hamarren batzuk jaitsi dira aurreko soziometroarekiko.

Buruzagi politikoen balorazioari dagokionez, Urkullu lehendakaria da 5etik gorako puntuazioa lortu duen bakarra (5,3), atzetik datoz, Andoni Ortuzar 4,6, Arnaldo Otegi 3,8, Idoia Mendia 3,7, Nagua Alba 3,7 eta, baloraziorik kaxkarrenarekin, Alfonso Alonso, 2,1. Guztien balorazioek behera egin dute apur bat, Nagua Albarenak izan ezik, hamarren bat igo baita.

Hala alderdiak nola buruzagiak 2014tik ohiko eta egonkor diren baloretara itzuli dira oro har. Garrantzitsua da zehaztea otsaileko azken Soziometroan balorazio guztiak igo zirela, bost hauteskunde prozesu jarraian jaso zituen hiru urteko epe baten lehen inkesta izateak azaldu lezake hori.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 2.268 lagunek osatua da. Elkarrizketak aurrez-aurre egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 2,1$ eko da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2017ko maiatzaren 16tik 22ra bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak